

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ATXONDOKO UDALAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2011.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Atxondoko Udalaren 2011ko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute Osokoaren kideek.

Kontu Orokorraren fiskalizazio txostenak -Udala eta bere sozietate publikoa barne hartzen dituenak- legezkontasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, diru-sarrera, langileria, diru-laguntza eta administrazioko kontratazioaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezkontasunaren atalean, Epaitegiak udalaren eta bere sozietate publikoaren jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta ekonomia-finantzazko jarduera arautzen duen araudia zuzentasunez bete dela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude jasoak.

Langileriarri dagokionez, HKEEk besteak beste adierazi du soldata eta hirurtekoen kontzeptuko hartzekoak eta aparteko ordainsari guztiak ez zaizkiola 2011rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean agindutakoari egokitzen.

Zerga sarrerei dagokienez, berriz, HKEEk esan du udalak ez dituela 2006ko apirilean zerga ordenantza indarrean sartu zenetik HILBIZi lotuak dauden egintza zergagarrien gaineko likidaziorik egiten.

Berebat, kontratazioaren alorrean azpimarratu da bi obra kontratutan aldaketak egin direla Udalean, hasiera batean esleitutako zenbatekoa % 35 eta % 36 gehitu dutenak; horrek kontratuaren xedea ez ezik, bolumen ekonomikoa ere itxuraldatu egiten du. Bestalde, Udalak indarrean du udal aretoak garbitzeko kontratua, 2006ko ekitaldian zuzenean urtebeterako esleitu eta beste urtebetez luzagarri zena, publikotasun eta lehia printzipioei meneratutako beste prozesu bat abiarazi gabe.

Udalaren eta bere sozietate publikoaren Kontu Orokorrari dagokionez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du horren aurkezpen eta edukiari dagokionez; ordea, akatsa azaleratu du, besteak beste, kontabilitateari egindako hainbat doiketen ondorioz, Diruzaintza Geldikina 279 mila euroan eta Funts Propioak 307 mila euroan murriztu dituztenak.

Halaber, HKEEk barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu, kontabilitate, langileria, kontratazio eta diru-laguntzen arloetan.

Finantza egoerari dagokionez, 2011ko ekitaldian zehar Udalak aurrezki garbi positiboa izan duela ondorioztatu da eta horrekin inbertsioak finantzatu ahal izan dituela, nahiz aurreko ekitaldikoak baino askoz txikiagoak izan diren, eta aldi berean Diruzaintza Geldikin positiboa eskuratu. Gogoan hartzen badugu, gainera, zorpetze mailak sarrera arrunten % 60,55a egiten duela, Udalak gastuak murrizten jarraitu beharko luke egonkorturik edo are murrizten ari diren sarrera arrunten eszenategiaren aurrean.